

DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO PRESTAKUNTZA KONTRATUETARAKO LAGUNTZAK 2016 (FPI-MINECO)

Deialdiaren ezaugarriak:

Deialdia atera da doktorego tesia egiteko lau urterako 1.048 laguntza banatzeko (horietatik hamar, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat). Tesiek lotura izan behar dute Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren (MINECO) «Jakintzaren sorkuntza» eta «Gizartearen erronkak» 2015eko azpiprogramen deialdietan onartutako proiekturen batekin.

Aukeratutako proiektuen zerrenda hemen ikus daiteke: <http://tinyurl.com/j4g3avo> .

Deialdiaren berrikuntzak:

1. 2016/17 ikasturtean doktorego programa batean matrikulatuta dagoen edo onartua izan den edonor aurkez daiteke. Baldintza hau egiazta daiteke 12. artikuluan zehazten den akatsak zuzentzeko epea amaitzen den arte.
2. Laguntzak hiru kontzeptu biltzen ditu: kontratuaren finantzaketa, egonaldiak I+G guneetan eta doktorego ikasketen matrikula. Kontratatzan den ikertzaile bakoitzari 6.250 euroko laguntza gehigarri bakar bat emango zaio, I+G guneetan egonaldiak egiteko eta doktoregoko matrikularako erabili ahal izango duena.
3. 6.250 euroko laguntza gehigarri horrekin egiten diren egonaldiak gutxienez hilabetekoak izango dira, ikertzailea xede gunean jardunean hasten den egunetik hasita. Diru laguntza hau bakarrik erabili ahal izango dira kontratuak dirauen bitartean.

Eskatzaileen eskakizunak:

2016/17 ikasturtean doktorego programa batean matrikulatuta edo onartua egotea.

Laguntzen ezaugarriak:

Laguntzen helburua da doktorego aurreko lan kontratueterako diru laguntzak ematea doktoregaien prestakuntza sustatzeko. Kontratuok gehienez lau urterako dira, eta soldata urtean 16.422 euro gordin izango da.

Eskariak aurkezteko epea:

2016ko irailaren 13tik 27ra, biak barne. Azken eguneko 15.00etan amaituko da.

Eskariak Internetez aurkeztu behar dira, aplikazio hau erabilita:

<https://sede.micinn.gob.es/ayudaspredoctorales/>

Behin eskaria eginda, **sinatu eta erregistratu egin behar da**, behar bezala aurkeztutzat jo dadin.

UPV/EHU n egin beharreko tramitea:

Eskatzaile bakoitzak egin behar du eskaria, deialdiaren lehen fase honetan ez baita beharrezkoa Ikerketaren arloko errektoreordearen baimena.

Harremanetarako:

Bidali galderak MINECOra zuzenean: predoctoral@mineco.es .

Informazio gehiago:

Honako esteka honetan ohiko galderen zerrenda bat eguneratu dago, alde administratiboez, informatikoez eta tramitazio kontuez:

<http://tinyurl.com/j3974yw>